

# laborantzak: Ortuariak

## Landare-osasuna



Landare-osasunearen inguruko 43/2002 Legeak (<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2002-22649>), **landare-ekoizpenean gertatzen diren izurrien kontrako markoa ezartzen du.**

### Ortuarien izurriak

Hona hemen ortuariak izaten dituzten **izurri nagusiak**:

1. **Landare-zorriak**
2. **Armiarma gorria**
3. **Euli zuria**
4. **Nematodoak**
5. **Meatzariak**
6. **Tripak**

Ortuarien izurrien informazio gehiago (<https://nekazaritza.elika.eus/lo/izurriteak-etatasunak/ortuariak/#ortuarienizurriteak>)

### Ortuarien gaixotasunak

Hona hemen ortuariak izaten dituzten **gaixotasun nagusiak**:

1. **Alternaria**
2. **Bakterio-txankroa**
3. **Oidioa**
4. **Herdoila**

Ortuarien gaixotasunen informazio gehiago (<https://nekazaritza.elika.eus/lo/izurriteak-etatasunak/ortuariak/#ortuariengaixotasunak>)

Produktu fitosanitarioen erabilera jasangarria



Irailaren 14ko 1311/2012 Errege Dekretuaren (<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2012-11605>) bidez ezartzen da produktu **fitosanitarioen erabilera jasangarria** lortzeko jarduketa esparrua.

1311/2012 EDaren alderdi nabarmenak (<https://nekazaritza.elika.eus/lo/fitosanitarioak/produktu-fitosanitarioen-erabilera-iraunkorra/>)

ELIKAko fitosanitarioen atala (<https://nekazaritza.elika.eus/lo/fitosanitarioak/>)

## Kontrol Ofiziala

---



Europako araudiak Europar Batasuneko estatu kide guztiei ezartzen die **Kontrol Ofizialerako Planak egiteko betebeharra**, bat etorritz Kontrol Ofizialei buruzko 882/2004 (EE) (<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=DOUE-L-2004-81110>) eta 2017/625 (EB) (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=CELEX%3A32017R0625>) Erregelamenduekin.

Erregelamendu horien arabera, europako Estatu bakoitzak hainbat urtetarako **Plan Nazionala** burutu eta indarrean jarri beharko du. Elikagai eta pentsuen segurtasunaren eta kalitatearen arloko legezko eskakizunak betetzeko plana dela esan daiteke. Estatu mailan, **Elikakatearen Kontrol Ofizialerako III. Plan Nazionala 2016-2020** indarrean dago.

Euskal Autonomia Erkidegoko elikagai eta pentsuen kontrol ofizialaz arduratzen diren agintaritza guztiek elkarren artean koordinatzeko dituzten beharrei erantzuteko, **Euskadiko Nekazaritza Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Plana 2016-2020** osatu da.

Kontrol Ofizialaren atala - ELIKA (<https://nekazaritza.elika.eus/kontrol-ofiziala/>)

## Kutsatzaileak

---

### Plagiziden Hondakinen Gehieneko Mugak (HGMak)



**HGMa elikagaietan eta pentsuetan legez toleratzen den plagiziden hondakin kopuru handiena da**, 396/2005 (EE) Araudiarekin (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/ALL/?uri=CELEX:32005R0396>) bat etorritz ezarritakoa.

La utilización de los plaguicidas en las cosechas puede conllevar la **presencia de residuos**, esto es, restos de la utilización de un **producto fitosanitario, incluidos sus metabolitos y los productos resultantes de su degradación o reacción**.

Plagiziden hondakinei buruzko informazio gehiago (<https://nekazaritza.elika.eus/lo/fitosanitarioak/#plagizidenhondakinak>)

## Ortuarien kasuan, produktu fitosanitarioen hondakinen gehieneko mugak ondorengoak dira:

LMR Ortuariak - Europar Batzarreko datu basea (<http://ec.europa.eu/food/plant/pesticides/eu-pesticides-database/public/?event=product.resultat&language=EN&selectedID=86>)

## Zenbait kutsatzailerren mugak



**Ortuarien mikotoxina eta metal astunak** Batzordearen 1881/2006 Araudian (EE) (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=CELEX:32006R1881>) daude araututa, eta horren bidez zehazten da elikagai produktuetako kutsatzaile jakin batzuen gehienezko edukia.

### Nitratoak

**Nitratoei** dagokienez, ortuariak dira gizakien ingesta-iturri nagusia, **klima-baldintzek eragin handia dutelako** zenbait ortuariren **nitrato-mailan**; esaterako, letxuga eta espinaken mailan. Horrenbestez, gehienezko mugak ezarri behar dira urtaroaren arabera.

**Ortuarien kasuan, zenbait kutsatzailerren gehienezko edukiak** 1881/2006 Araudian atxikitutako tauletan aurkitu daitezke:

Kutsatzailerren gehieneko edukia - (CE) 1881/2006 Araudia (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=CELEX:02006R1881-20180319>)

+ Nitratoei buruzko informazio gehiago

## Muga mikrobiologikoak



2073/2005 zenbakiko Araudiak (EE), (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=celex%3A32005R2073>) **irizpide mikrobiologikoei** buruzkoak, **elikagaien muga mikrobiologikoak** ezartzen ditu.

### Salmonella eta E.Coli

2073/2005 zenbakiko Araudiak (EE) (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=celex%3A32005R2073>), irizpide mikrobiologikoei buruzkoak, **Salmonella eta E. Coli** ortuari, fruta eta produktu eratorrien inguruan aipamena egiten da 1. kapitulan.

**Salmonella, E.Coli etabeste zenbait kutsatzailaren kasuan gehienezko edukiak** 2073/2005 Araudiko I. Dokumentu Atxikituan aurkitu daitezke:

Elikagaien xede mikrobiologikoak - (CE) 2073/2005 Araudia (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=celex%3A32005R2073>)

+ Muga mikrobiologikoei buruzko informazio gehiago



Trazabilitatea (<https://wikia.elika.eus/index.php?title=Trazabilitatea>), **elikagai jakin baten jatorria eta ibilbidearen etapa guztiak** (biltzea, ekoiztea, egitea, biltegitratzea, banatzea...) berreraikitzen ahalbidetzen duen tresna da. 178/2002 Araudiak (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/ALL/?uri=CELEX:32002R0178>) ezarten ditu trazabilitateak bete beharrekoak.

Nekazaritza ustiategiek **identifikatu egin beharko dituzte euren zuzkitzaile edo hornitzaileak zein bezeroak, eta informazio horren erregistro sistema izan beharko dute.**

Trazabilitateari buruzko oinarrizko informazioa (<https://nekazaritza.elika.eus/trazabilitatea/>)

## Ortuarien ekoizlearen trazabilitatea

Ustiategi berean ekoizten diren ortuarien kasuan, **nekazariak laboreei, uztari, garraioari eta biltegitratutako produktuari buruzko datuak erregistratu beharko ditu** ustiategiaren instalazioetan dagoen bitartean.

### Atzeranzko trazabilitatea

- **Laboreei buruzko datuak** (landareak ugaltzeko materialen jatorria: haziak, haztegietakoko landareak, zuhaitz-landareak, landaretxoak...).

### Barne trazabilitatea

Ekoizleak gutxienezko informazio hau jaso beharko du:

- **Ereindako uzten kopurua eta eremu osoa.**
- **Tratamendu fitosanitarioak** (aplikazioaren data, merkataritza-izena, saltzailea, lotearen kodea, dosia, itxaroteko epea, eta abar).
- **Uzta zein egunetan jaso den.**
- **Loteen** kopurua.
- **Ustiategi barruko garraioari buruzko datuak:** jatorria, norakoa eta zein egunetan garraiatu den, baita atoi edo kamioien identifikazioa ere.
- **Biltegitratzea:** ortuariak prozesatu arte gordetzeko erabiltzen diren biltegiei buruzko datuak: identifikazioa, kokapena, zein egunetan uzten/ateratzen den.

### Aurreranzko trazabilitatea

Ortuarien kasuan, **lotea esan ahal zaio** entrega berean bezero berberari ematen zaion ortuari baten kopuruari. Hona hemen erregistratu beharreko informazioa:

- **Zein bezerori eman zaion produktua.**
- Produktu **mota**.
- **Emandako produktuaren lotea** edo trazabilitate-kodea.
- **Produktu-kopurua.**
- **Produktua zein egunetan eman den.**

# Erregistroak eta Baimen administratiboak

---

Nekazal-jarduera baten garapenak, ustiatzean burutzen diren jardueren arabera, erregistro desberdinen izen-ematea baldintza du. **NEEO**, **EOEO**, **TOEE** eta **NMEO** dira erregistro nabarmenenak.

ELIKako Erregistroak eta Administrazioaren baimenak atalera sarbidea (<https://nekazaritza.elika.eus/erregistroak-eta-baimenak/>)

## Higienea eta Autokontrola

---



Elikagaien higienari buruzko 852/2004 (CE) Araudi (<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=DOUE-L-2004-81035>) orokorrarak **nekazaritza-ekoizpen primarioan aplikatu beharreko higie-neurriak** ezartzen ditu.

ELIKako Higiena eta Autokontrola atalera sarbidea (<https://nekazaritza.elika.eus/higienea-eta-autokontrola/>)

+ Jardunbide egokien gida ortuarien ekoizpenean

## Ekoizpen sistemak

---

Gaur egun erabiltzen diren ekoizpen sistema garrantzitsuenak **Ekoizpen konbentzionala** -berez, Izurriteen Kudeaketa Integratua erabiltzea behartuta dago- **Ekoizpen Integratua** eta **Ekoizpen Ekologikoa** dira.

ELIKako Ekoizpen Sistemak atalera sarbidea (<https://nekazaritza.elika.eus/ekoizpen-sistemak/>)

## Adierazpen Geografiko Babestua (AGB)



Maiatzaren 12ko, lurralde gainautonomiko eremuko jatorrizko Izendapen Babestuen (BII) eta Indikazio Geografiko Babestuen (AGB) 6/2015 Legea (<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2015-5288>) eta (UE) 1151/2012 Araua (<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=DOUE-L-2012-82546>) dira AGBak eta BIIak arautzen dutenak.

Lehengaiak ekoiztu, eraldatu edo egiten diren prozesuetan, inguru geografikoak gutxienez etapa batean presentzia badu, Adierazpen Geografiko Babestua (AGB) deritza. Gainera produktua izen-ona hartzearen onura du.

Eskualde, eremu zehatz edo, salbuespenetan, herri baten izena; nekazaritza- edo elikagai-produktu bat izendatzeko balio duena:

- Aipatu eskualdearen, eremu zehatzaren edo herriaren jatorrizkoa dena,
- Aipatu jatorri geografikoari leporatu dakioken kalitate zehatz, ospe edo bestelako ezaugarriren bat izatea, eta
- Bere ekoizpena, transformazioa eta elaborazioa zehaztutako eremu geografikoan garatzen dira.

Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoan Adierazpen Geografiko Babestu bakarra dago ortuariekin erlazionatuta:

• **Gernikako Piperra / Pimiento de Gernika** (<http://www.euskadi.eus/web01->

[a2elikal/eu/contenidos/informacion/dop\\_pimiento/eu\\_agripes/dop\\_pimiento.html](http://www.euskadi.eus/web01-a2elikal/eu/contenidos/informacion/dop_pimiento/eu_agripes/dop_pimiento.html))

**ELIKA** . Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxa: 945 122 171 .

[berri@elika.eus](mailto:berri@elika.eus) (<mailto:berri@elika.eus>)